

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko azaroaren 12a

Egunkaria


Gehigarri honetan



Lizaso • Ultzamaldean onddoetara joanen dira mikologia ikastaro baten barnean

Mikel Belasko • «Toponimiari dagokionez, gaur egun ez dago mapa egokirik»

CiudadCity Babilonia



• «DESAFIO DE UNA UTOPIA» - EUSEBIO LEAL SPLENGER

Hirigintzaren inguruko ideiak eta proiektuak trukatzeko hirien sarea da CiudadCity Babilonia. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak bultzatu du. Hainbat hiri daude sarean, Kubako Habana haien artean. Egunotan Desafio de una utopía liburua aurkezten ari dira, Habana Zaharrean egin duten lehengoratzearen testigu. Hiriek, ezberdinak izanik ere, antzeko arazoak dituzte, eta CiudadCity Babiloniaren helburua da hiri batean eginikoetatik beste hirikoek ikastea.

Ultzama • Ultzamaldean onddoetara

Mikologia ikastaro bat antolatu du Lizasoko Orgiko Hariztiak

Orgiko Hariztia Aisiarako Natur Eremuak antolatu duen ikastaroan, bertako ziza eta onddoak sailkatzen irakatsiko du Javier Gomez Gorosti elkartekoak, diapositiba emanaldi, ateraldi eta hitzaldien bidez.



Ziza eta onddoak sailkatzen irakatsiko da Lizason, Ultzamako bailaran, diapositiba emanaldi, ateraldi eta hitzaldien bitartez. Gorosti elkarteko Javier Gomez izango da hizlaria.

● EGUNKARIA

HERRITAR GEHIENOI ZIZA ETA onddo txarrak zeintzuk diren badakigula iruditzen zaigu. Dena den, urtero toxikatu ohi da norbait hiriko eta herrikoen artean. Denetan ezagunena *Entoloma Lividum* motaren toxikapena da. Mota hori *ilarraka*-rekin nahastu ohi da, itxuraz oso antzekoak baitira (jateko ona da *ilarraka*); joan den hilean, esate baterako, Zizurko familia bati gertatu zitzaion, eta orain dela urte batzuk, Larraintzar herriko gizon bati. Ondorioak ez dira oso larriak, baina ospitalean, gutxienez, bi edo hiru egunez egoten dira tripako minak jota.

Gorostiko kide Javier Gomezek aipatu duenez, "herriko jendeak bere ziza larreak ditu, eta urtero miatzen ditu, eta kontuz ibili behar du, urte batetik bertzera ateratzen den ziza mota alda baitaiteke". Urte batean ziza jateko ona ateratzen den tokian, hurrengoan pozoitsu ateratzen ahal da.

Gaur arratsaldeko zazpitan bilduko dira Lizasoko Kuartelenean etxean, turismo bulegoan, ikastaroan aritu nahi dutenak. Lehengo egun honetan oinarriko mikologia aztertuko dute, hau da, nola ateratzen diren zizak, nola elikatu eta ugaltzen diren, oihanetarako zein diren onuragarriak eta abar. Horretaz gain, bertako nahiz kanpoko ziza motak diapositiben bitartez ezagutuko dituzte.

Larunbatean, goizeko hamarretatik ordu biak arte, inguruko oihanetan barna ibiliko dira, tal-

deka, ahalik eta mota gehien biltzeko. Gomezek ez du argi garai honetan mota anitz bildu ahal izanen dituzten. Orain dela gutxi, Lantzen, nahikotxo bildu zituzten hango pagadietan, behar bada urrian baino gehiago. Orain, ordean, pagoen hostoen erortzea dela-eta, izozteak hasi direla-eta, gutxiago izanen dira. Beraz, hariztietan edota toki baxuetan bilatu beharko dute.

Zizak hartzeko moduaren harira, Gomezek erran du kome-nigarria dela osorik hartzea, "bertzela sailkatzeko klabe bat

uzten ahal da lur azpian".

Astelehenean izanen dute azkeneko eguna, Kuartelenean, berriro ere arratsaldeko zazpitan. Larunbateko ale guztiak ateratzen atera eta, sailkatzeko klabe batzuk jarraituz, ezaugarrien arabera, zein familiatakoak diren asmatzen saiatuko dira. 600 pezetaren truke, txarrak zirela-koan alboan utzitako zizak onak direla jakiteko aukera izanen du gaur 19:00etan Lizasoko turismo bulegoan azaltzen denak.

→ Txari Eleta

Lizarra

•
Udazkenean antzerki eta zinema emanaldiak

UDAZKENA GARAI EDERRA IZATEN da bideetan barrena abiatzeko eta zuhaitzen koloreei so egiteko. Baina, halaber, garai aproposa da teilapean goxo-goxo egoteko eta, are gehiago, antzerki emankizun bat ikusteko baldin bada. Urtero legez, Lizarrako Udalak antzerki jardunaldiak antolatu ditu egunotarako. Joan den ostiralean Erriberako Antzerki Taldeak *Las burlas de las mujeres* antzezlanaren aurkeztu zuen moduan, gaur, iluntzeko zortzietan, Kataluniako Vol-Ras taldea ikusi ahal izanen da San Benito gunean. *Gestos, muecas y porturitas* da gaur gozatu ahal izanen den emanaldiaren izenburua. Bertan hiru clown edo aktorek eguneroko bizitzaren zenbait egoera parodiatuko dituzte, publikoaren artean gogoeta eta barre-algara sortzeko asmoz. 22.00etan izanen da, Los Llanos zinematokietan, eta sarrerak 500 pezeta balio du.

Heldu den ostiralean, hilaren 19an, AZ Producciones antzerki taldeak *Una chica difícil* lana taularatuko du. Antzerki jardunaldiak amaitzeko, Lizarrako Kilarrak Antzerki Taldeak bere azken lana estreinatuko du Lizarran bertan, abenduaren lehen asteburuan.

Antzerkiaz gain, zinema ziklo berezia ere ikus daiteke egunotan. Hainbat film pantailaratu dituzte jada. Hilabete honetan *Cuento de otoño*, *American History X* eta *Estacion central de Brasil* emanen dituzte.

→ Kristina Berasain

Gaztainak

ziutatea

ARITZ AGIRRE



Hotzak ez dio hutsik egin bere urteroko zitari. Baina ez digu berak ekarri neguaren iragarpena. Kiskalitako gaztaina-usaina du neguak, eta horri lotuta dator iparraldeko haize hotza. Gaztainak karrikaritzen dituztenean laburtzen zaigu eguna, sekula ez lehenago. Orduan jaisten da merkurioa termometroetan. Gaztainen presentziak jantzarazten digu lepokoa eta iluntzen du eguna. Betiere, hiriaren ekosisteman gaztainak agertzen direnean.

Irekia da gaztainak ehizatze epea eta, hortaz, hasia neguko erritualak. Itsutu egiten gaitu furgoneta gainean paratutako kasete zaharren etengabeko doinu berberak. Eta gaztainen

zain hantxe egoten gara, ilara luzean partaide. Suak ekarriko digun izerdia dugu maite, eskuek eskatzen duten oskolaren berotasuna egun hotzetan. Eta bide batez, are hobeki gaztaina-saltzailearen irribarre zein hitz jario goxoa jasoz gero. 40 durotan (1,25 eurotan) salduko digute berogailua, kukurutxo formatoan. Eta prezio horren barne musika, irribarrea eta ordainduta-koaren hondarra ematen dizun esku belztu lizuna. Betiko usadioaren marketing zuzena finean.

Izan ere, ez baitago neguko arratsalde goxorik dozena bat gaztaina gabe, eta horren lekuko da gaztaina-txokoen ugaltzea, alde zaharretik hasi eta auzunetan barrena. Xarma

berezia dauka gaztaina erreak. Ez da gosea asetzeko kontua. Eta horretaz aspaldi jabetu zen opari eskaparatearen gibelean mutua, bakkrik eta isolatua diharduen dendaria. Ezen tradizio kutsu handia behar baitu dendari txikiak ilara luze horiek erdiesteko, prozesioz betetako gure herri honetan. Ahalmen hori gordetzen du gaztainak: elurrak bezainbeste hunkitzeko gaitasuna, betiere hiper handien eremutik at. Gaztaina erreak ekarri digu negua. Horixe, kafearekin batera karrika hotzetatik paseatzeko aitzakia... esperantza.

Barnealdetik arra irten artio iraunen du ilusioak.

Baztan •

Auzolanak bizirik darrai

Elbete eta Azpilkuetako bi eraikuntza moldatu dituzte

Gaur egun ia ezinezkoa da pentsatzea norbaitek musu truk lan egin dezakeenik, norberarentzat ez bada bederen. Hala ere, Baztanen bada oraindik auzolanak egiteko prest dagoen jendea.



Duela gutxi Elbeteko iturria (irudian) eta harraska moldatu dituzte, auzolanean.

• RAKEL GOÑI

GARAI BATEAN, BAILARAKO EDOZEIN herritan auzolana egin behar zelarik, etxe bakoitzak halabarrez pertsona bat bidali behar zuen lanera. Bide partikularrak moldatzen zirenean interesdunak bakarrik biltzen ziren. Elizaren kasuan, ordean, denek joan behar zuten, eta etxeren batetik ezinezkoa bazen, peoi bat ordaindu edo sosa ematen zuten. Langileek jasotzen zuten ordain bakarra bukaerako berendua zen, gehienetan xardinxarrez eta ardoz osatua.

Duela gutxi Elbeteko labadaria edo harraska eta iturria moldatu dituzte auzolanean, eta Azpilkuetako Apaioa auzoan dagoen Frantzisko Xabier donearen baseliza laster bukatuko dute. Bi lan horietan aritu direnak ez dute sosik kobratu, baina jakin badakite euren herriaren ondarea gordetzeko

balioko duela ahalegina. "Elizan deia zabaldu genuen, eta gero ere ahoz aho jakin zuten elbetarrek laster harraska auzolanean konponduko genuela", aipatu du Patxi Ameztok Elbeteko alkateak. Denbora nahikotxo behar izaten da moldaketa lan horiek akitzeko, bertara joaten diren boluntarioak gehienetan euren asteroko lana daukatelako. "Hasieran hamar bat lagun hasi ginen lanean, baina moldaketa akitu genuenean bi besterik ez ginen gelditzen", kontatu du Patxi Ameztok. Gauza guztiak bezala, gogoz hartzen da auzolana, baina gero jendea as-

pertu egiten da. Frantzisko Xabier donearen ohorez egindako baseliza konponketa handia eskatzen zuen aspalditik. Lan handia egin dute azpilkuetarrek, eta laster emaitza bere osotasunean ikusiko dute.

Amaiturak ere berriki bukatu dute elkartearen berrikuntza. Herri guztiei bezala, Baztango Udalak beharrezkoak diren materialak ordaindu dizkie, baina beste guztia beraiek egin behar izan dute.

Elizondori dagokionez, bazirudien herri handia izanik auzolanaren ideia erabat galduko zute-

la, baina duela bi urte, alkateari esker, herriko zubiak garbitu eta konpondu ziren. Erantzuna ezin hobe izan zen eta ohiturarekin jarraitzea erabaki dute.

Baztango herri gehienetan besta garrantzitsuetarako karrikak larrez eta belarrez garbitzen dira auzolanean. Izan ere, herri ttikientzat ezinezkoa da horrelako zerbitzuak ordaintzea. Zorionez, jendeak oraindik badaki ondarea gorde behar dela, eta, horregatik, badirudi auzolanak luze iraungo duela Baztanen.

→ RAKEL GOÑI

Bortzirriak

Kultur ekitaldi ugari asteburu honetan

EKITALDI ANITZ DAGO ANTOLATUTA asteburu honetarako, batez ere Beran eta Lesakan. Bi solasaldi izanen dira gaur Beran; bata arratsaldeko 18:30etan eta bestea 20:00etan. Lehendabizikoa Bidasoa Ikerketa Zentroak antolatutako soziolinguistika ikastaroen barnean egingen dute, eta Fernando Mikelarena Huescako Unibertsitateko irakasle eta Bidasoa Ikerketa Zentroko kideak ematen du: *Euskara eta nafar foralismoa XX. mendean* izanen du mintzagai solasaldiak.

Berekin batera Josu Chueca EHuko Kazetaritza Fakultateko irakaslea jardunen da, *Euskara eta euskal abertzaletasuna Nafarroan, XX. mendean* gaiaren inguruan.

Hurrengo bi asteetan ere izango dira Soziolinguistikako Jardunaldiak, ortziraleroko, 18:30etan. Berako Jamotenean, *Euskara eta ideologia* gaiaren inguruan hain zuzen. Hitzaldietan Xabier Erize eta Carlos Vilches ariko dira hilaren 19an, eta Paula Kasares eta Patxi Larretxea azkeneko solasaldian, hilaren 26an.

Bernardo Atxaga eta abesbatzaren kontzertua

Gaur ere, 20:00etan, kultur etxean Bernardo Atxagaren solasaldia aditu ahal izanen da, Labiaga Ikastolaren 25. urteurrenaren kariatz.

Bihar, larunbata, Berako kultur etxean, 19:30etan, Irungo Atzokoak abesbatzaren kontzertua izanen da. Berako abesbatzak antolatu du ekitaldia. Lesakan, berriaz, 21:30etan, Mutrikuko Goizeko Izarra antzerki taldeak zenbait lan ttiki eskainiko ditu Kasino ostatuan.

Bestalde, igande honetan amaituko da Berako Euskara Batzordeak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatutako kafe-antzerki zikloa. Oihulari Klown antzerki taldeak arratsaldeko zazpitan, *Klonferentziak* lana agertuko du Lixioa ostatuan.

→ Jon Abril



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Hostoak landa etxeentzat

LANDA etxei buruzko araudi berria aztertu du **Ttipi-ttapa** aldizkariak azken zenbakia, Asier Gogortza kazetariak idatzi artikularen bitartez. **Ttipi-ttapa**-ko informazioak jasotzen duenez, hostoekin neurtuko da landa etxeen kategoria aurrerantz: "Aspalditik zegoen Nafarroako landa etxeentzat araudi bat egiteko beharra. Bezeroari kalitatezko zerbitzu bat eman nahi baldin bazaio, honek aitzinetik jakin behar du ordaintzen duen etxea nolakoa den. Helburu horrekin sortu du Nafarroako Gobernuak hostoen arabera sailkapena, eta hiru urteko epea dute etxeetako nagusiek sistema honetara egokitzeko".

"Nafarroako landa etxeak hiru kategoria desberdinetan sailkatuko dira hemendik aitzinera. Hoteletan izarrak edo jatetxeetan sardeskak agertzen diren moduan, landa etxeen atarietan zuhaitz hostoak ageriko dira: bat, bi edo hiru hosto. Horrez gain, bereizketa gehiago egin dituzte etxearen ezaugarriaren arabera. Batetik, nekazal etxeak eta landa etxeak desberdindu dira hemendik aitzinera. Azkendak dituzten etxeek bakarrik hartuko dute nekazal etxe izena. Bertetik, *logela-landa etxeak* eta *etxebizitza-landa etxeak* bereizi dituzte, jabeak etxean bizi diren edo ez kontuan hartuz".

Hirurak Bat elkarteko lehendakari Sagrario Goñiren hitzak bildu ditu **Ttipi-ttapa**-k: "Guri arras zaila iruditu zitzaigun arautegia hasieran. Problema handiena zen pistak moldatu beharra. Bigarren arazoa nekazal eta landa etxeak bereiztea zen, abuztuan lan anitz denean ezin baita aldi berean baserriko lanak egiten eta bezeroei erakusten aritu. Hori ere aldatuko zutela erran zuten Gobernuak. Bezeroari kalitate minimoa emateko bigarren hostora ailegatu beharko genuke, nere ustez", bertako telebista. Xaloe Telebista du izena eta azaroaren 18an zabaldu zituen lehen irudiak.

Habana, CiudadCity Babilonia

Hirigintzaren inguruko ideiak eta proiektuak trukatzeko hirien sarea zabaltzen ari da

CiudadCity Babilonia proiektua edo ekitaldi multzoa azaltzea ez da lan erraza, abstraktutasunean erortzeko arriskua baitago. Hirien eraikuntza eta antolakuntzaren inguruko ideien trukatzeko hirien sarea izan nahi du. Hainbat hirik osatzen dute sarea eta, haien artean, Kubako Habanari buruzko *Desafío de una utopía* liburua aurkeztzen ari dira egunotan munduan.

IRUÑEA, BILBO, GASTEIZ ETA DONOSTIA hiriak CiudadCity Babilonia proiektuaren fundatzaileak izan ziren, proiektuaren atzean Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala baitago. Ondoren, Habana, Miami, Bartzelona eta Puerto Ricoko San Juan bildu ziren, eta urtarilean Mexico D.F., Montevideo, Cartagena de Indias eta Leioa sartuko dira.

Natura eta teknologia (1996), *Tradizioa eta glamourra* (1997) eta *Bizilagun eta mutanteak* (1998) jardunaldien ostean, Arkitektoen Elkargoak liburu bana atera zuen: CiudadCity 1, 2 eta 3. 1996ko jardunaldietan, Eusebio Leal Spengler historialari kubatarra izan zen, eta berak adierazi zuen Habanan egiten ari ziren programa nazioarteko sare baten barnean zabaltzea litzatekeela egokiena. 1998ko jardunaldiak gizarte-ari ireki zitzaizkion, eta, arkitektoak ez ezik, bestelako profesionalak ere hartu zuten parte eta agerian utzi zuten eztabaidagune iraunkorra sortu beharra. CiudadCity Babilonia sortu zen orduan, «hiri irekia, nazioartekoa, demokratikoa, malgua, zibila, laikoa eta oso mistizoa» bultzatu nahi du, Habana Zaharra da horren adibide.

«Webgunea sortu dugu (www.ciudadcity-babilonia.net) hiri bazkide bakoitzak bere proposamenak egin eta besteenak ikus ditzan», erran du Urtaşunek. «Webguneak orain Arkitektoen Elkargoaren 1999ko sariak biltzen ditu, baina berrituko dugu alpa-



CiudadCity Babiloniak «hiri irekia, nazioartekoa, demokratikoa, malgua, zibila, laikoa eta oso mistizoa» bultzatu nahi du, Habana Zaharra da horren adibide.
● «DESAFÍO DE UNA UTOPIA»

tu edukiekin, eta Habanan aurkeztuko dugu, abenduaren 4an. Kontua da topagunea iraunkorra izatea, hiriek euren proiektuak eta jarduerak zabaltzeko. Webgunea lanabes bat da edozein momentutan kontsultatzeko eta jardueren berri emateko.

Urtero batzar bat egitea espero dute. Aurretik, Habanan izan den hirirotako arkitektoak, abenduaren 4tik 11ra. Han, erran bezala, webgunea ofizialki aurkeztuko dute. Eta hilaren 13tik 15era jardunaldi batzuk egingen dituzte Hegoaldeko lau hiriburuetan, non Jorge Rigau puertorricarra, Jose Gelabert miamiarra eta Enric Massip kataluniarra izanen baitira. Heldu den urtean Miami Beach hiriak hartuko du Habanaren lekuko.

Topaketa eta jardunaldiez landara, CiudadCity hainbat argitalpen karrikartzeko

proiektua da. Batzuk monografikoak izanen dira, beste batzuk tematikoak, baina betiere sareko hirien inguruan.

Utopia baten erronka

Desafío de una utopía CiudadCityren argitalpenen artean sar daiteke. Liburu horrek biltzen du Habanako Historialariaren Bulegoak Habana Zaharra lehengoratzeko presatutako estrategia. Habanaren zaharberritzea Eusebio Leal Spengler historialariak zuzendu du. Lehengoratzeko horrek Urtaşunek arestian definitu duen CiudadCity Babiloniaren ereduak izan nahi du.

Angel Morua CiudadCity Babiloniaren inguruko argitalpen guzien editorea da eta egunotan Habanan dago han banatuko baitutu *Desafío de una utopía* liburuaren 3.000 aleak azaoren 15 eta 16ko Estatu

Iruñea, Bilbo, Donostia eta Gasteiz dira CiudadCity Babiloniaren fundatzaileak. Gero elri ziren Habana, Miami, Bartzelona eta Puerto Ricoko San Juan eta Montevideo, Cartagena de Indias eta Leioa. Ideiak trukatzeko hiri samsortzea da helburua.



buru iberoamerikarren kongresuan izanen diren estatu ezberdinen ordezkartzen artean.

Morua dioenez, «Desafío de una utopía» gizatiariaren ondare hiria den Habana Zaharrean egiten ari denaren laburpena da, berreskurapen patrimoniala zela berreskurapen soziala. «Beste hiru liburu genituen argitaratuta Habanaren inguruan, eta azken hau funtsezkoa da ulertzeko Historialariaren Bulegoaren lana ondare historiko, artistiko eta soziala berreskuratzeko». Hilabete barru itzuliko da Morua Euskal Herrira, eta orduan monografiko bat aurkeztuko dute Habana Zaharrari buruz, zeinak «Desafío de una utopía» liburuaren edukia zabaltzen baititu. «Eta Eguberrien ostean aterako dugu liburu bat Miami Beach hiriko Ocean Drive karrikako art-deco ondarea lehengoratzeko

ko lanaren inguruan», iragarri du Morua. «Gauza bera egingen dugu beste hiriek ere. Liburu hauek interesgarriak direla uste dut eta Elkargoko kideen artean banatzen diren modu berean, lasai aski egon daiteke Tokio, Madril, Paris edo Chicagoko liburutenda batean».

Dagoeneko existitzen ziren harreman instituzionalen bidez sartu dira beste hiriak proiektu honetan. «Habanarekin arras harreman estua izan dugu duela hiruzpalau urtetik, Kubako Gobernuarekin eta, zehazki, Historialariaren Bulegoarekin», komentatu du Morua. Habanaren inguruko hainbeste material argitaratzearen inguruan zera dio Morua: «Interesgarria iruditzen zitzailgun sakontzea pixka bat gehiago ciudad-karibe izenekoan. Guretako erronka bat zen zaku berean sartzea Habana eta Miami Be-



Habana Zaharra lehengoratzeko egindako lanek hirien ondarearen berreskuratze artistikoa, historikoa eta soziala ekarri dute. Irudiotan, Habanako karrika bat lehen nola zegoen eta orain nola utzi duten ikus daiteke.
● «DESAFÍO DE UNA UTOPIA»



ach. Duela bi urte salatu ginen, baina politika dela medio, ezinezkoa izan zen. Eta orain lortu egin dugu».

Besteek egindakotik ikasi

Natxo Izeta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolakuntzako zuzendaria da eta «proiektuaren aldeko gartsua», Moruaren hitzetan. «Hiriak elkarren artean ezberdinak izan arren, arazo berdintsuak dituzte, dela garraioetako arazoak, dela etxebizitza arazoak. Sare honetatik espero dena da besteen esperientziak ikusiz ikastea eta guk geuk gure esperientziak zabaldu besteek horietatik ikas dezaten».

Izetaren aburuz, elkartrukatzeko hauetatik anitz ikas daiteke. «Arazo amankomunak ditugu eta toki batean esperimentu bat egiten badute horren berri jakiteak argi pixka bat ematen diezaguke». Izetak onartzen du CiudadCity Babilonia zerbait abstraktoa irudi daitekeela, baina ukitzeko gauzak nahi badira hor daude liburuak eta ihardunaldi ezberdinak. «Hirien garapenaren inguruko hausnarketa gunea da CiudadCity Babilonia», errepikatu du Izetak.

→ Asier Azpilikueta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

“Euskal sena” aitzakia, Latxagarena oroitzuz

Euskal kulturaren urtea Durangoko azokarekin amaitu edo hasi egiten dela esan genezake, eta honi begira uhinka datozkigu mota guztietako euskal liburuak; berriki, eta politika komertzial honi zintzoki jarraikiz, Latxagaren azken liburua iritsi zaigu, Euskal sena, Antonio Zabalak kudeatzen duen Auspoa Liburutegiaren barruan, 260. zenbakiarekin hain zuzen ere.



LTXAGAREN LIBURU BERRIA aurretik utziriko beste lau libururen zerrenda borobiltzera badatorkigu. *Naparroa euskal arrobia* 1973.ean kaleratu zen Antonio Maria Labaien hitzaurre batekin, eta San Migel egunean aurkeztu zen Iruñean. Urte berean *Aralarko San Migel* aurkeztu zuen Inozentzio Aierbek moldakatu sarreratxo batekin. Azkenik, *Errioxako San Millan euskal iturri* liburua 1974.ean agertu zen Latxaga Parisen zenean. Hiru liburu hauek Gasteizen inprimatu baziren ere, Donostiako argitaletxe batek ateratu zituen. Jon Oñatibiaren Edili izenekoak hots. Laugarrena *Jakara oñez Naparroan zear* izenburukoak dugu —Bilbo, LGEV, 1976—, Inizako Damasok tajutu sarrera batekin elki zena.

Jose Maria San Sebastian Zubillaga, Latxaga, Donostian sortu zen 1933.ean, alabaina aitaren aldetiko sendiaren erroak nafarrak izaki, berau ere arras lotua sentitu izan da beti Nafarroarekin, eta hala erakutsi izan du behin baino gehiagotan, bere idazlanak sinatzeko ere aspaldian aukeratu zuen ezizenak argikiro erakusten digunez —*Latxaga* Iturengo auzo baten izena baita—. Nonbait, XVIII. mendean iritsi ziren Berastegira bere askazi urrunak Basaburuko Labaiendik, alta, horren urrutira joan beharrik izan gabe, Nafarroarekiko maitasuna, baita euskara eta euskal sena ere, Berako Ugainbordan arnastu zituen Latxagak bertan amatxia zeukan Maria Zugarramurdirengandik.

Eliz ikasketak amaitu ostean, Latxagak Orexara egin zuen 1969.eko urrian erretore, hantxe lau bat urte eman zituelarik. Bertan itzeleko lana burutu zuen euskararen inguruan: bere lehenbiziko euskal liburuak izkiriari eta argitara eman zituen Orexan zegoela, baina horrezaz gainera, kaleko euskaldun berriek udan euskara kolore bizia goz jatzeko proiektua eraman zuen aurrera. “Orexako Udara-

ko erri Unibersidadea” bataiatu zuen horretan ez zen bakarrik izan, eta Jon Oñatibia adiskidea izan zuen horretan ere lagun.

Orexatik egonaldia ahitu eta Parisera joan zen Latxaga berriz ere ikasle; aurreneko Sorbonan izan zen, eta ondoren ere New Yorkeko Columbia unibertsitatean, luzaro gainera. Honen ondorioz, hiru esparrutan doktore dugu Latxaga, teologiaz aparte, baita antropologian eta hizkuntzalaritzan ere. Guztiaekin, Latxagaren lanetan ederki uztartzen dira hiru arloak bakar bat osatuz, bere azken liburuaren izenbuak ederki asko definitzen duena: *euskal sena*. Orexan ze-



goela, eta antropologiaren bide-
tik, bertako ikerketa etnologikoa
burutu zuen, euskaraz, Joxe-
miel Barandiarani argitaratzeko
eman ziona. Oraino Orexan ze-
goela, euskal aditzaen bereziki
sakondu zuen, eta hortaz, Nafa-
rroako Aldunditik behin baino
gehiagotan deitu zuten aditza-
ren morfologiak irakasle nafa-
rrei mintza zekien. Hizkuntzala-
ritzan doktoratzeko Sorbonan
aurkeztu zuen tesia euskal adi-
tzaren gainekoa izan zen, eta
honen ulertzeko 1984.eko *FLVn*
Recherches sur la morphologie
du verbe basque kolaborazioa

agertu zigun. Berrikiago ere,
1994.ean hain zuzen, *La repre-*
sentación del tiempo en el verbo
vasco artikulua agertarazi du
gai bertsuaz. Euskal filologian
ere, eta Lakarra-Kortazarren
ikerketa agertu zen urte berean,
1983.ean alegia, Barrutiaren
antzerki lanaren faksimila eman
zuen argitara Tolosan.

Antropologia eta teologiaren
barruan, berriz, bestelako la-
nak ere agertu bazituen agertu
Latxagak: *Eglise particulière et*
minorités ethniques, jalons pour
l'évangélisation des peuples mi-
noritaires —Clamecy, 1978—
eta *Minorités nationales et litur-*
gie romaine, lexemple de la litur-
gie en Basque —Paris, 1979—
lan gotorak, *Iglesias rupestres*
visigóticas en Alava: la Capado-
cia del País Vasco y el complejo
rupestre más importante de Eu-
ropa —Bilbo, LGEV, 1976— eta
¿Una piedra discoidal visigótica
en Lizarraga? —1977.eko
CEENn—, edota *Euskal Erriko*
sinodua —Lazkao, 1984—.

Honakoez gainera, artikulue-
gile ezin naraogo gertatu zaigu
Latxaga; 60.eko hamarkadan
Jose Antonio Garateren *Goiz Ar-*
gi aldizkariako kolaboratzaile su-
tsua izan zen, baita *Príncipe de*
Viana aldizkariaren euskarazko
gehiarria ere. Honako biak
desagertu ondoren, Euskera-
zaintzaen paperean eta *Diario*
*de Navarra*ko euskarazko
orrian bereziki segitu izan du
idazten. “Euskeraren erri aka-
demia” Durangon sortu zen
1978.ean, Lino Akesolok Eus-
kaltzain osoa izateari 1963.ean
zaputuz egin ostean, eta izen be-
reko argitalpena 1987.ez geroz
hasi zen agertzen Agustín Zubi-
karainen zuzendaritzapean; ho-
netan hamabost bat artikulua
agertu ditu Latxagak, baita Xo-
morroen euskal izenei buruzko
lan interesgarria zuzendu ere.
Bestalde, *Diario de Navarra*ko
“Nafar izkuntza”-n, alegia, au-
rretikago “Nafar izkuntzan
orria” zenean, aspaldian idaz-
ten hasia bada ere, 1997.ez ge-
roz, Manu Oñatibia zendu zene-
tik, honen arduradun osoa du-
gu.

etorri ahal leian

Patziku Perurena



Jainko turistikoa

LITERATURAKO PERTSO-
nala izan da betida-
nik Jainkoa. Sekula
izan den maiztuena
eta aipatuena. Eta hainbeste
sortzailek zalakatu du, non
atzenean sorkari arrotz, itxura-
gabe, eta izugarri bihurtu den.

Umetan, bere basamor-
tuan, errementari talde des-
konfiatu baten balakuak eta
zigorak jaso ondoren, juduta-
rren tabernakulu batean de-
serriratu izan zen, aurreneko
Testamentuaren Kutxa altzo-
an zeramala. Lur Santura aile-
gatu bezain laster, jende gu-
ziak bere aterbe erosoa bilatu
zuen; izi politikak judutarrak;
baina Jainkoak berriz uka,
bere tabernakulu deserosoan
gizaldien gizalditan.

Davidek, beste zereginetan
hagitz lanpetua, ez zion jebu-
searren jainko zaharrei baino
kaso haundiagorik egin. Salo-
monek orde, aurreneko tem-
plu dotorea eraiki zion, Astarté
eta beste jainko batzuekin go-
za zezan; itsuski egina, jakina,
bakar bakarrik ez ipinte hori!

Gerozago, setaldi askoren
ondotik, beste bi tenplu egin
zizkioten, tabernakuluaren
eredu berekoak. Bien bitarte-
an, apaizen kapritxo kontra-
jarririen gerizpean, bere nortasun
eta eginbideak argitu ezin har-
tan, bizipen eskizoiak ulerga-
rri asko pairatu behar izan
zuen Jainkoak.

Eromatarrek azkeneko ten-
plorik arranditsuen desegin
zuten garatsuan, indartu egin
zen berriz gure Jainkoagana-
ko propaganda sarrerik zabale-
na, bidenabar bere nortasun
eta bizileku finko bakar izanen
zenaz zehazte miragarrienak
lau haizetara ufatu.

Teologiek, nola ez, izengoiti
ikaragarri apaindu zuten; os-
perik haundikoenek hirukoi-
tzat eta gizon egintzat jo zuten
Jainkoa. Hiponako Agustinek
historia unibertsala taigabe
asmatzen lanpetutako sortzai-
le dramatizatzat aitortzen du;
Deskartek ezinbestekotzat
izendatzen; Einsteinek arra-
zionaltasun kosmikora jasoko
du; Newtonen orbita astralen

karkuluaren eta sostenguaren
eginbehar ezinburutua bete-
tzeko kastigua emanen dio.

Avilako Teresak desiragarri
ikusten du; Paskali espan-
tuhaundi samarra ez ote den
iduritzen zaio; Voltairek erloju-
gilearen trazak hartzen dizkio;
Kierkegaardek itogarria dela
egiten du aldarri; Berkelayk
begiluze hutsa dela ateratzen
du kontu. Lautreamont eta Sa-
dek mahaxi egiten diote haren
behar gorria dutelakotz...

Bistan da, inolako zuhur-
tzariak eta errespetorik gabeko
espekulazioak, irainak eta za-
mak bereganatu dituela gure
Jainko gaixoak. Inolako taju-
rik izan al lezake, orde, hola-
ko sorkari batek? Okerrena
duzu, gainera, nahi duen gu-
zia egiten duela oraindik jain-
koak. Eta larrefilosofia leitzar
batek ongi zioen bezela, “*nor*
fia nahi duena egiten due-
naz?”. Salaketa hori, orde, a-
laborari fiakaitza bere lurretik
bizi zenekoa da.

Gaurko munduan, gorriago
dauka Jainkoak: munduko
bazter guztietan beti present
dagoenez, ezin baitu turismo-
rik egin, ezin inora joan opo-
rretan... Egia, ez dirudi pertso-
nala modernoak denik Jainko-
ak. Inoiz izan den modernoena
duzu, halere. Aurreko batean
turismo bulego nazkante ho-
rietako panpin rubia bati adi-
tzen niona lekuko: “*guk jendea*
Jainko baltiz bezala tratatzen
dugu, istant batean munduko
edozein txokotan eroso senti
dadin”.

Edozeinek pentsa lezake go-
go argiko eta zuhurreko gizar-
te libre alai batean bizi garela,
baina inoiz baino hobeki na-
bari da, jende triste guziā
Jainko amorfo horren bila da-
bilela oraindik, bere buruaren
Jabe bila, alegia. Eta gure Ya-
be gainera, Yahweh hartatik
omen dator, ez? Ba, hortik ate-
ra kontuak.

Neietzek arrazoi zuen. Lo-
gikak hil zuen Jainkoa, sortu-
tako fabrika berean, eta bere
buruaren Yabetzarik gabe da-
bila geroztik jende lojiko
munduan.

Ziria

• Motxorrosolo •

Utzikeria

ESPOPULAZIOAK EZ DAKAR DERRIGORREZ DESERROTZEA. MENDIALDEA
zafratzea xede duten proiektu arrandiosak lekuko. Lehiak
muga zilatze balio izan du, materiala izan orde, soziologikoa den
zilaketa. Jakobinismoak zalantzan jarri du autobidearena. Erabate-
ko utzikeria al da honen guziaren gakoa.

Mikel Belasko

Filologoa

«Gaur egun ez dago mapa egokirik»

Mikel Belasko filologoa toponimian aditua da, hots, leku izenen erranahiaren ikertzailea da. Berriki Nafarroako herri eta hirien izenen hiztegi etimologikoa liburua berrargitaratu du, non 1996tik Nafarroan izan diren izen aldaketak jasotzen salatu baita. Ez da lan erraza, ordea.

TOPONIMIAN BETI ARI DIRA GAUZA berriak ateratzen eta Nafarroakoa etengabeko prozesuan dago sarturik. Gutinaka-gutinaka, udalak ari dira euren euskarazko izena ofizialtzen.

■ Zertan da toponimiaren egoera Nafarroan?

Alde batetik, oso ongi dago. Oso ongi ikertu da eta liburu asko argitaratu da. Baina beste kontu bat da erabilerarena. Nafarroako Gobernuak nahiko ongi erabiltzen du toponimia ofiziala errepideetan eta mapetan, baina *Diario de Navarra*-k ez, eta hori da Nafarroan gehien irakurtzen den egunkaria. *Diario de Navarra*-k eutsi dio lehenagoko erabilerari, eta jende askorentzat lehenagoko izenak, erdazko grafia dutenak, bizirik daude eta, horietaz aparte, badira euskarazko beste batzuk. Jendeak egunero irakurtzen ditu *Lesaca* eta *Vera* bezalakoak, eta horrek, nahitaez, berebiziko eragina du. Egoera oso nahasia da, eta horretan guzian euskara ateratzen da kaltetua.

■ Zer egin daiteke baina?

Orain, euskara ere ofiziala den aldetik, izenak egokitu behar dira, eta ikusi behar da zein den izenik egokiena. Gutxi gorabehera Nafarroako Euskararen Kontseiluak eta Euskaltzaindiak finkatu dute zeintzuk diren euskarazko izenak. Hor jada ez dago


dudarik. Gustatu ala ez, baditugu euskarazko izenak, eta horiek ofizialdu behar dira. Hori da logikoa. Baina, euskaraz gaur egun esaten dena da askotan erderaz erabiltzen den izen bera. Eta gero heldu da Euskaltzaindiaren txostena esanez euskaraz modu batean esan behar dela. Eta nola inork ez duen erabiltzen, orduan sortzen dira arazoak.

■ Zer nolako arazoak sortzen dira?

Adibidez, orain igual Irunberrikoek eskatuko dute *Ilunberri* izena, futbol taldeak izen hori duelako, eta esplikatut beharko zaie *Ilunberri* dela egokiena; baina normalean, hizkuntzalari batek ematen dituen arrazoiak inork ez ditu ulertzen, eta azkenean, Udalak nahi baldin badu, *Ilunberri* jarriko dute. Ez da pekatu larria, baina hori gerta daiteke. Oso mundu konplikatu da hau, baita bitxia ere.

■ Zein iritzi duzu Iruñea-Iruña ikamikaren inguruan?

Aspaldi onartu zen *Iruña* dela izen ofiziala eta deklinabidea egin behar dela *Iruñea*-ren gainean. Gauza bitxia da benetan. Dena den, bistan da *Iruñea* dela izenik egokiena euskarari begira, baina *Iruña* ez da horren gauza itsusia. Egund, *Iruñea* izeneko hiririk ez dago, *Iruña* existitzen da. Ez dakit zer pentsatuko duen erdaldun batek, baina ematen den itxura ez da batere ona. Konponbidea litzateke Euskaltzaindiak esatea *Iruña* ere posible dela eta



● INAKI BERGARA

soslaia

Mikel Belaskok, 32 urteko iruindarrak, duela bederatzi bat urte bukatu zituen Euskal Filologia ikasketak, Gasteizen. Bukatu eta berehala hasi zen Nafarroako toponimia tikian lan egiten, Trabajos Catastrales enpresaren bidez, Jose Maria Jimeno Juriorekin batera. Durangon, zorte pittin bat lagun, bi liburu izanen ditu: oraintsu berrargitaraturikoa eta Nafarroako mendi eta erreken inguruko beste bat.

Nafarroako herri guzien izenak bildu ditu liburuan, baina dagoeneko zaharkiturik dago. "Bukatu nuenetik Artzibar, Bidaurreta, Uztarroze, Izaba eta Burlatakoek euren euskal izenak ofizialdu dituzte", azaldu du Belaskok. Berez asmoa zen beste liburuetan zegoen guzia ematea, modu laburtuan eta argian. "Eta batez ere interesatzen zitzaidan herrietan izaten diren esplikazio bitxiak ematea", gaineratu du.

Liburuaren sarreran gogor ekin dio Belaskok orain arte karrikatu diren leku-izenen edo abizenen inguruko liburu gehienen kontra. Haren hitzetan, hagitz erakargarriak dira liburu horiek, edozein abizenen azalpena ematen dutelako. "Baina hori tranpa egitea da", dio Belaskok. Izan ere, ezinezkoa omen da izen guzien azalpen garbia ematea.

nahi duenak erabil dezala bata edo bestea.

■ Hau da, aldaera ofizialari amore ematea?

Bai, baina *Iruñea*-ren zuzentasunari eutsiz.

■ Nola konpon daiteke herrien izen bikoizketaren eskizofrenia?

Nik proposatzen dut Euskaltzaindiak proposatzen dituen euskal izenak dekretuz ofizialtzea, eta euskarazko testuetan euskal izena erabiltzea eta erderazkoetan bestea. Hori litzateke modu egokia. *Abaurrea Alta-Abaurrea Gainako Udala* jartzea erdizkoia da, eta buletinetan horrelako gauzak ikusten ahal dira. Hori da euskarazko hitza jartzea erdararen usadioan. Hori erdal euskaltzalearentzat polita izan daiteke, baina besterik ez. Finkatu beharko litzateke ongi noiz erabili biak batera: kartografian, seinaleetan eta izenburretan. Baina erabakia udalen esku utzi dute. Horrela, *Zizur Nagusia* aldatu da, baina *Cizur Menor* ez. Gaur egun ez dago mapa egokirik. Batean eta bestean lardaskeriak daude, eta ez dira zuzenak. Izan ere, urtean hamar bat herrik abiatzen dute izena aldatzeko prozedura. Eta konponbidea erraza da: Euskaltzaindiak eta Nafarroako Euskararen Kontseiluak proposatutako euskal izenen zerrenda ofizialtzea.

■ Bestetik, erdaldunen aurkari-tza dago.

Bai, erdaldunek ezin dute aldaketarik nimitziena ere onartu. *Eugi* oso gogorra egiten zaie eta *Eugui* nahi dute. *Olague*-ren dieresia ikaragarritzko borroka da. Gero niri tokatzen zait deitzea eta esatea *Olague*-k euskaraz ez daramala dieresirik. Baina ez dute ulertzen. Eta azentoei berdin. Ez daude prest euskal izenak euskarazko grafiarekin erabiltzeko. Eta errazagoa egiten zaie erdararen grafiazkoa mantentzea eta ondoan euskarazkoa jartzea. *Laquidain-Lakidain*, *Ilundain-Ilundain* eta holakoak sortzen dira orduan. Diferentzia da *Yanci* eta *Igantzi*-ren kasua. Erdaldunak ezin du *Igantzi* ahoskatu. Eta kasu horretan igual utzi beharko lirateke bi aldaerak.

→ Asier Azpilikueta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Nortzuk ziren radatarrak?

RADAKO HERRI-AZTARNATEGIA BISITARIENTZAT egokitu berri du UPNren Gobernu Hezkuntza eta Kultura departamenduak. XV. mendean hutsik gelditu zen herririka honetan 125 biztanle inguru bizi ziren, eta bertan aurkitu diren agiriak nahiko argi utzi dute zeintzuk ziren herriaren ezaugarri nagusiak.

Besteak beste, Rada Erresuma zaharren defentsagune garrantzitsua izan zen, eta herriaren gorabeheretan argi ikusten dira Nafarroako historiaren gertaera garrantzitsuak. Indusketek begi-bistan utzi dute ia herri osoa eta bertako administrazioak, auzitan dagoen autopista enpresarekin batera, lan garrantzitsua egin du berritze lanetan. Honen ondorioz, lehengo astetik aurrera posible da arbasoen bizilekua bisitatzea.

Dena den, arazoa bestelakoa da. Nortzuk ziren benetan radatarrak? Noren kontra defendatzen ziren? Zergatik gelditu zen hutsik herria XV. mendean? Galdera hauek erantzuteak aztarnategiko etxeak bisitatzea baino zailago dirudi. Izan ere, azkenaldi honetan behin baino gehiagotan egin dugu topo Nafarroako Erresumarekin, gehienbat kultur arloko ekimenean, esate baterako, Artxibategi berria izango denaren lanen hasieraren inaugurazioaren ekitaldi arranditsuan. Horretan ere, Erret-Jauregiaren orubean, antzinako errege-erreginei buruzko aipamen batzuk entzun ziren, baina oso zeharkakoak eta, badaezpada ere, ahapeka botata.

Gaur egungo agintariek arazo handia dute: iraganera begiratzen duten bakoitzean ez dute gogo handiegirik agertzen begirada historikoa luzatzeko, Nafarroa izan zena (eta horren ondorioz dena) azaltzeko borondate eskasa. Nahiago izaten dute edo guztietan guztien artean ere nekez lortuko baitute gizartearentzat hain preziatua litzatekeen oparia.

KONTZERTUAK

- **Berrioazar:** Plazatik salarat kontzertu didaktikoa eskainiko dute gaur 20:00etan San Esteban elizan. Nafarroako musika zaharra eta erromesendako doinuak izanen dira entzungai, eta azalpenak euskaraz ematen dituzte.
- **Zizur Nagusia:** Bide Ertzean gipuzkoarrak Kultur Etxean izanen dira gaur 22:00etan.
- **Zangoza:** Javier Garaialde & Ramon Garcia Jazz Quintet taldeak bihar 20:30etan Karmengo auditorioak joko du.
- **Aurizberri:** Moliendo Cafe Trio & Amigos taldea ariko da bihar 20:30etan, Herriko pilotalekuan.
- **Larresoro:** (LT) taldeak bere hiru garren diskoa aurkeztuko du bihar, larunbatearekin.
- **Aiziritze:** Bihar, 00:00etan, herriko frontoian, Su Ta Gar elkartarrak izanen dira, azkeneko diskoko kantak aurkezteko.
- **Elizondo:** Igandean, Bide Ertzean taldeak kontzertua eskainiko du Kultur Etxean, 20:00etan.
- **Burlata:** Dragon Lord heavy taldea Black Rose tabernan izanen da asteartean, 20:30etan.

HITZALDIAK

- **Miarritze:** Gaur, ostiralearekin, 19:00etan, Salome Gabunia etnologoak *L'anthologie de la poésie basque* hitzaldia ematen du Le Colisee aretoan.
- **Burlata:** Garzón, la otra cara liburuen aurkezpene egingen du gaur Pepe Rei kazetariak, 19:45etan, Axular elkartean.

ANTZERKIA

- **Barañain:** V. Txotxongilo Jaialdiren barnean, Taun Taun taldeak *Txitoen istorioak* lana eskainiko du gaur, gaztelaniaz (18:00etan) eta euskaraz

(20:00etan), udaletxeko erabilera anitzeko aretoan.

- **Iruñea:** Tiantaka taldeak *El florido pensil* antzezlan arrakastatsua taularatuko du Gaiarre antzokian igandean, 20:00etan.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Txantreako Euskal As-


tearen barnean, gaur, 19:30etan, euskaltegia inauguratuko dute bertsolari, txalapartari eta pandero joleekin eta abesbatzarekin. Bihar, 13:00etan, Arriurdineta plazan Txantreako abesbatzaren emanaldia izanen da, eta 17:00etan Ortazar dantza taldearen ikuskizuna. Eta igandean, Kaskallueta elkar-

tetik, goizeko bederatzieta zizatarra abiatuko dira.

- **Iruñea:** San Martin 99ren barnean, gaur rock kontzertua izanen da 23:00etan. Bihar, 16:30etan III. Billarreko eta Mahaiko Futboleko Txapelketa egingen dute Larrazpin. Ordu bete geroago Gozogintza Lehiaketa egingen dute Erga Larreak elkartean.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



A felicidad.

Zoriona.